

# **RASFF TXOSTENA**

## **ALERTAK eta JAKINARAZPENAK**


### **ELIKAGAIAK**

#### **2017ko BIGARREN LAUHILEKOA**

**Jakinarazpenen kategorizazioa**  
**Jakinarazpenen jatorria**  
**Kutsadura iturrien sailkapena**  
**Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak**  
**Etiketetan adierazi gabeko elikagaiak**


### **JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA**

2017ko bigarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 1195 jakinarazpen izan dira. Horietatik 320 alertak izan dira (%26,5), 357 informazio-jakinaraizenak (%30) eta 518 mugan egin diren ukapenak (%43,5).



### **JAKINARAZPENEN JATORRIA**

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **24,5a Indiakoak** dira eta jarraian **Turkiakoak: % 22arekin**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituen herrialdea **Espainia** da, % **23,5arekin**. **Afrikaren** kasuan, ez da herrialderik nabarmentzen. **Amerikaren** kasuan, **Brasil** da jakinarazpen gehien sortu dituztenak (**% 73a**).

### **KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA**

2017ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1195 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

<b>Kutsadura iturriak</b>	<b>%</b>
Kutsadura biologikoa	36,5 %
Mikotoxinak/biotoxinak	15,5 %
Iruzurak	11,5 %
Hondakinak	10,5 %
Metal astunak	9,5 %
Kutsadura kimikoa	7,5 %
Produktuaren egoera higieniko txarra	6 %
Kutsadura fisikoa	3 %



## **KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGIAK**

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **71**ean, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **43,5a** eragin du. Kasu gehienetan (% **46a**) kakahuetea **Txinatik** zetorren.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **70a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **87,5**ean. **Oilaskoa** izan da produktu protagonista %**73**ko kasuetan, %**86,5**eko kasuetan **Brasil** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **7,5a** **Salmonella enteritidis** dagokio (**oilaskoak** eragin ditu kasuen % **82a** eta %**66,5**eko kasuetan **Polonia** izan da jatorria) eta %**5a** **Salmonella typhimuriumi** (eskortako hegaztiak eragin dituzte kasuen % 53,5a, eta %75ean Europa izan da jatorria).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **10a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **behi-haragia** (% **53a**). *E.coli* eragindako jakinarazpen gehienak **Brasil** jatorria zuten (%**65a**).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**78a** dira eta medikamentuak %22a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**37,5**ean eta gehienak (%**68a**) **turkiakoak** dira.

**Metal astunei** buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **63,5a**. Ezpata-arraina protagonista izan da %71,5eko kasuetan eta jatorria Espainia %48an.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	184	<b>Aflatoxinak</b>	131 (71%)	kakahueteak	57(43,5%)	Txina	26 (46%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	435	<b>Salmonella sp.</b>	304 (70%)				
		<b>Salmonella sp.</b>	<b>266(87,5%)</b>	<b>oilaskoa</b>	<b>193(73%)</b>	<b>Brasil</b>	<b>167(86,5%)</b>
		<i>S.enteritidis</i>	23 (7,5%)	oilaskoa	18 (82%)	Polonia	12 (66,5%)
		<i>S.typhimurium</i>	15 (5%)	eskorta-hegaztiak	8 (53,5%)	Europa	6 (75%)
		<b>E.coli</b>	44 (10%)	behi-haragia	17(39,5%)	Brasil	11 (65%)
<b>Metal astunak</b>	112	<b>Merkurioa</b>	71(63,5%)	ezpata-arraina	50(71,5%)	Espainia	24 (48%)
<b>Hondakinak</b>	124	<b>Pestizidak</b>	97 (78%)	barazkiak	37(37,5%)	Turkia	25 (68%)
		<b>Botikak</b>	27 (22%)	ganbak	8 (31%)	India	7 (87,5%)

## **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK**

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %38,5a (54 kasu), hau da kasuen ia erdia, etiketan alergenok ez dituztelako adierazi izan dira.

	<b>ELIKAGAIIA</b>	<b>Nº (%)</b>	<b>JATORRIA</b>	<b>Nº (%)</b>
<b>Etiketan adierazi gabeko alergenok</b>	<b>Plater prestatuak</b>	20 (37%)	Europa	20 (100%)
	<b>Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak</b>	15 (28%)	Europa	11 (73%)
	<b>Fruitu lehorrak eta fruta deshidratatua</b>	6 (11%)	Asia	3 (50%)
	<b>Saltsa, espeziak, kontserbak</b>	5 (9%)	Europa	3 (60%)
	<b>Bestelako elikagaiak</b>	7 (13%)	Europa	5 (71%)